

ERAKUSKETAK URRETXU 2025

1) Martxoaren 7tik 23ra: MATILDE SAINZ (Arrasate) – akuarela

BIDE NAGUSIAREN BILAKETA ARTEAN

Amaigabeko bilaketa esperimental egin ondoren, hauxe da margolariak aurkezten duen obra. Bertan akuarelak dira nagusi. Margolariaren bakarkako seigarren erakusketa da. Bost serietan banatu da erakusgai dagoen obra: basoak, ur ertzeko figurak, grisak, glaziarak urtzen eta Oteizaren apostoluak (Arantzazukoak). Sail bakoitzaren hasieran, kontestualizatzeko testu bat egongo da. Akuarelan badakigu urak aktiboki parte hartzen duela. Jardun egiten du, protagonismoa hartuz, eta, beraz, margolaria berarekin aliatu egin behar da.

LA BÚSQUEDA DEL CAMINO PRINCIPAL EN EL ARTE

Después de una búsqueda experimental inacabada, esta es la obra que presento. En ella predominan las acuarelas. Es mi sexta exposición individual. La obra que expongo la he dividido en cinco series: los bosques, las figuras de la orilla, los grises, los glaciares se funden y los apóstoles de Oteiza (de Arantzazu). Al inicio de cada serie habrá un texto que ayude a contextualizar. En la acuarela sabemos que el agua participa activamente. Actúa, adquiriendo protagonismo, por lo que la pintora debe aliarse con él.

2) Martxoaren 28tik apirilaren 13ra: AGENDA 2030

3) Maiatzaren 9tik 25era: CARLOS MEDIAVILLA eta MIGUEL ÁNGEL PÉREZ (Urretxu) – argazkia

HEGOAK

Hegoak naturaren argazkien erakusketa da, batez ere hegaztiena. Urretxu udalerrian aske dauden hegaztien HIDE batetik hartutako irudiak dira. Inguratzen gaituen edertasuna erakutsi nahi diogu publikoari eta, gainera, ikastetxeentzako material didaktiko interesgarria ere izan daitekeela uste dugu.

HEGOAK

Hegoak es una muestra de fotografías de la naturaleza, sobre todo aves. Son imágenes tomadas en el municipio de Urretxu, desde un HIDE, de aves en libertad. Queremos mostrar al público la belleza que nos rodea y además pensamos que también puede ser un material didáctico interesante para los centros escolares.

4) Ekainaren 4tik 8ra: UZ IKASTOLAKO IKASLEAK - eskulanak

Birziklatutako materialekin ikasleek egindako eskulanak.
Manualidades hechas con material reciclado por las/os alumnas/os

5) Ekainaren 20tik uztailaren 6ra: LIRAIN JAUREGI (Urretxu) – margoa

LIBLING REBOLUTION, MANIFIESTO DE COLORES

La artista Lirain Jauregi nos trae una propuesta muy crítica y pacifista, utilizando el color cómo lenguaje. En esta ocasión no faltará, cómo es de costumbre, la presencia de la técnica “Libling”(técnica de la que obtuvo los derechos de propiedad intelectual en 2014), aportando la fuerza que le caracteriza y creando un diálogo con el/a espectador/a, haciéndole participe y parte del batallón de esta nueva: silenciosa revolución de colores.

LIBLING REBOLUTION, KOLORE MANIFESTUA

Lirain Jauregi artistak oso proposamen kritikoa eta bakezalea dakarkigu, kolorea hizkuntza gisa erabiliz. Oraingo honetan ez da faltako, ohi bezala, “Libling” teknika (2014an jabetza intelektualaren eskubideak lortu zituen teknika), ezaugarri duen indarra emanez eta ikuslearekin elkarrizketa bat sortuz, batailoi berri honen partaide egingo du: isileko koloreen iraultza.

6) Irailaren 12tik 28ra: MIREN PUERTAS (Azkoitia) – marrazkia

DONOSTIA ZURI-BELTZEAN

Donostia hiria ardatz hartuta, proiektuko marrazkiek nolabaiteko ibilbidea erakusten dute, zirriborroetan hasi eta gero eta lerro soilagoetara iristerainoko bidea, hain zuzen. Hustasun handiago baterantz edota betetasunerantz, nondik begiratzen denaren arabera. Itsasotik lurrera. Baldin eta hutsune bat badago, dena dago hor. Marraztu bakarrik ez, zerbait idatzi nahi nuen; ez, ordea, edozer. Aspaldiko bilaka aritze horren bila itzuli denari.

DONOSTIA EN BLANCO Y NEGRO

Centrados en la ciudad de San Sebastián, los dibujos del proyecto muestran un cierto recorrido, desde esbozos hasta líneas cada vez más sobrias. Hacia una mayor vaciedad o plenitud, según desde donde se mire. Del mar a la tierra. Si hay un vacío, todo está ahí. No sólo quería dibujar, quería escribir algo, pero no lo que fuera. A quien ha vuelto en busca de esa vieja búsqueda.

7) Urriaren 17tik azaroaren 2ra: VITOR S.MENDONÇA (Urretxu) - margoa

EMOZIO SORTZAILEAK

Lana nire barnera egindako bidaia baten emaitza da, adimenak ezkututzen dituen emozio guztiak ezagutu, sentitu eta antolatzeko, eta horiek mihiseetan islatzeko. Pentsamenduek sortzen dituzten emozioek bultzatzen naute sortzera, marraztera, irudikatzerara, pintatzerara. Pentsamenduan ezkututzen dena hitzik gabe adieraztea.

EMOCIONES CREATIVAS

El trabajo es fruto de un viaje hacia mi interior para conocer, sentir y organizar todas las emociones que la mente esconde, para plasmarlas en los lienzos. Los pensamientos crean unas emociones que me impulsan a crear, a dibujar, a representar, a pintar. Expresar, de manera no verbal, aquello que queda escondido en el pensamiento.

8) Azaroaren 21etik abenduaren 7ra: “SPORT MUNDI” (ONG) – Jesús Amunarriz – argazkia

AFRIKAKO OIHARTZUNA

Jesús Amunarrizek egindako "Afrikako oihartzuna" argazki erakusketa, bizitzaz betetako kontinente bateko bizipenak, gogoetak eta istorioak bilduz sortu da. 46 herrialde dira azken hogeita hamar urteetan Afrikara egindako ia ehun bidaietan bisitatu dituenak, eta erakusketa honetan natura, animaliak, kultura, pertsonak eta tradizioak dituzten 21 argazki baino ez dira sartu. Sport Mundi GKEak antolatu du erakusketa, aurtengo hogeita bosgarren urteurrena betetzen baitu. Erakusketa solidarioa da, eta lortutako edozein diru-sarrera Afrikan emakumea ahalduntzeko proiektu solidarioekin elkarlanean aritzeko erabiliko da.

EL ECO DE ÁFRICA

Exposición de fotografías “El eco de África”, realizado por Jesús Amunarriz, ha sido creada recogiendo vivencias, reflexiones e historias de un continente lleno de vida. 46 son los países que ha visitado en casi cien viajes a África en los últimos treinta años, solo teniendo cabida en esta exposición 21 fotografías, con naturaleza, animales, cultura, personas y tradiciones. La exposición está organizada por la ONG Sport Mundi, que este año hace su veinticinco aniversario. La muestra tiene un carácter solidario y cualquier ingreso obtenido se utilizará para colaborar con proyectos solidarios en África, destinados al empoderamiento de la mujer.

